



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK
IRAGARRITAKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUTEN
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA,
PROZEDURA IREKIAZ ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA
ESKUAN ERAKOA, 3 EGUZKI INSTALAZIO TERMIKO
HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZEA
KONTRATATZEKO**

ESPEDIENTE ZENB.:
EER/10/004-A

PROZEDURA IREKIA

Bilbo, 2010eko uztailaren 21a
José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.
EEE/EVEko zuzendari nagusia



**KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA,
PROZEDURA IREKIAZ ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, 3
EGUZKI INSTALAZIO TERMIKO HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA
MANTENTZEA KONTRATATZEKO**

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: EER/10/004-A

A. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE), honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo, Bizkaia (Espainia).

- I.F.Z.: Q-5150001 E
- Pertsona arduraduna, teknikaria: Iñaki Boveda
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-403.56.88 / 94-403.56.99 / iboveda@eve.es
- Kontratatzailearen eskakizuna edo profila: www.eve.es

B. XEDAPEN APLIKAGARRIAK ETA AGINDU JURISDIKZIONALA

- Erregulazio armonizatuaren menpeko kontratua: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 173. artikulua eta honekin bat datozenak
- Jurisdikzio auzi-administratiboa

C. KONTRATUAREN XEDEA ETA LOTE EDO SAILEN BANAKETA

Hiru (3) eguzki-instalazio termiko hornitu, jarri eta abiarazteko kontratua egitea, giltza eskuan erakoa, eta horien mantentze prebentiboa kontratatzea hiru urteko (3) eperako. Kontratuaren xedea honako bi sail hauetan banatzen da:

- **Sail 1.** Hernaniko erresidentzia eta kiroldegia.
- **Sail 2.** Hondarribiako kiroldegia.

D. GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honetan aipatzen diren instalazio guztiak egin eta EEERI entregatu behar zaizkio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

E. JARRIKO DEN m² BAKOITZAREN ETA MANTENTZEAREN GEHIENENKO PREZIOA

- **Jarriko den m² bakoitzaren gehieneko kostua** ez da zazpiehun eta berrogeita hamar (750 €) euro baino gehiago izango, gehi BEZari dagokion 135 euro. Beraz, guztira, 885 € izango da gehieneko prezioa, BEZa barne.
- Instalazio bakoitzaren **mantentze prebentiboa** hiru urteko eperako ez da 2.500 euro baino gehiago izango urtean, gehi BEZari dagokion 450 euro. Beraz, guztira, 2950 euro izango da gehieneko prezioa, BEZa barne.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintza guztiak baztertu egingo dira.



F. IZAPIDEAK ETA PLEGUAK ESKURATZEKO LEKUA

- Ohiko izapidea
- EEEren Kontratatzailearen Profilaren atalean: www.eve.es

G. PROPOSAMENAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA

Eskaintzak edo proposamenak 2010eko irailaren 6ko 12:00ak arte jasoko dira.

H. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak Energiaren Euskal Erakundearen aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

I. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

J. BEHIN BETIKO BERMEA.

Kontratuaren prezioaren ehuneko bosta (%5) izango den zenbatekoa (BEZa gabe).

K. GUTXIENEN BERMEAREN EPEA

Instalazio termiko bakoitzean ezartzen den gutxieneko bermearen epea hiru (3) urtekoa da.

L. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

M. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

N. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

O. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOAK

Plegu honen 2.5.1 (vi) eta (vii) klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

P. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK		
Irizpidea	Deskribapena	Puntuazioa
1	<u>INSTALAZIOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK</u> Instalazioaren ezaugarri teknikoak Lan-metodologia Lan-taldea Jartzen diren bitarteko materialak Lanen planifikazioa eta lan horiek egiteko proposatzen den egutegiaren koherentzia Proposamen onenak	15
2	<u>BERMEA</u> Bermeari dagozkion epeak (instalazio osoa, alderanzgailuak eta moduluak) Bermean aurreikusten ez diren gastuak	20



IRIZPIDE EBALUAGARRIAK FORMULEN APLIKAZIOEN ARABERA		
Irizpidea	Deskribapena	Puntuazioa
3	<u>GAUZATZEKO EPEA</u> Instalazioak gauzatzeko epea laburtzea	15
4	<u>PREZIOA</u> Jarriko den m ² bakoitzaren prezioa	40
5	<u>MANTENTZEA</u> Urteko prezioa eta aurreikusten ez diren gastuak	10
GUZTIRA		100

Epeari, prezioari eta mantentzeari lotutako irizpideak balioesteko, honako formula honen arabera egingo da:

Gauzatzeko epea

Gehienez 15 puntu, 100 puntu artean

m² bakoitzaren prezioa, aurkeztuko diren eskaintza guztien batez bestekora gehien hurbilduko den eskaintzari, 20 puntu esleituko zaizkio.

20 puntu lortuko duen eskaintzaren aldean, beheko ehuneko puntu bakoitzeko puntu bat gehituko da; guztira, gehienez, 40 punturaino.

20 puntu lortuko duen eskaintzaren aldean, gorako ehuneko puntu bakoitzeko puntu bat kenduko da; guztira, gutxienez, 0 punturaino.

Beheko edo gorako ehuneko puntuak esleitzeko, aterako diren kantitateak handiagora edo txikiagora biribilduko dira ehuneko puntu hurbilenera. Kantitatea ehuneko puntuaren erdia izango balitz, gorako ehuneko puntura biribilduko litzateke.

Mantentzea

Gehienez 10 puntu, 100 puntu artean

- Urteko prezioa (euro), instalazioaren berme aldian [Gehienez 4 puntu]

Urtean 1.600€ baino gutxiago	4 puntu
Urtean 1.601€ eta 1.900€ artean	3 puntu
Urtean 1.901€ eta 2.200€ artean	2 puntu
Urtean 2.201€ eta 2.500€ artean	1 puntu

- Urteko prezioa, instalazioaren berme alditik at (%) [Gehienez 2 puntu]

Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldian %5 gehitzen bada	2 puntu
Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldian	1 puntu



%5 eta %10 artean gehitzen bada	
Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldian %10 baino gehiago gehitzen bada	0 puntu

- o Lekualdaketarako gastuak (bai/ez) [Gehienez 2 puntu]

Barnean badaude	2 puntu
Barnean ez badaude	0 puntu

- o Eskulanei dagozkien gastuak (bai/ez) [Gehienez 2 puntu]

Barnean badaude	2 puntu
Barnean ez badaude	0 puntu

Q. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

R. LUZAPENA

Ez dagokio.

S. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

T. PREZIOAREN ORDAINKETA

- (i) Giltza eskuan erako instalazio termikoak hornitu, jarri eta abiarazteko lanen ordainketak transferentzi bidez egingo dira, honako modu honetan:

- Kontratua sinatzean, lehen ordainketa egingo da, egitasmoaren guztizko prezioaren %25 izango dena.
- Ekipoak jasotzean eta instalazio guztien muntaketa fasea hastean, %30 ordainduko da.
- Muntaketa amaitzean, %30 ordainduko da.
- Gainerako %15a, instalazioak behin-behinean jasotzean. Gehienez ere, aldi horrek bi hilabete iraungo du, muntaketa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, betiere atzerapenak zerikusirik ez badu instalatzailearekin.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian EEERi dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

- (ii) Mantentze prebentiboari dagozkion kantitateak urtean egingo diren lau (4) ordainketen bidez kitatuko dira, adostutako mantentze lanak egin ondoren eta EEERi txosten teknikoak eta faktura jaso eta gero.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian EEERi dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.



U. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

**V. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO
DOKUMENTAZIOA IREKITZEKO EKITALDI PUBLIKOAREN LEKUA, EGUNA
ETA ORDUA (B GUTUN-AZALA)**

EEEren bulegoan irekiko da, Karatularen A atalean azaltzen den helbidean. Eguna eta ordua fax bidez jakinaraziko zaie lizitatzailerei, lizitatzailerean proposamenean harremanetarako emango den zenbakira bidaliz, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

**W. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO
DOKUMENTAZIOA IREKITZEKO EKITALDI PUBLIKOAREN LEKUA, EGUNA
ETA ORDUA (C GUTUN-AZALA)**

EEEren bulegoan irekiko da, Karatularen A atalean azaltzen den helbidean. Eguna eta ordua fax bidez jakinaraziko zaie lizitatzailerei, lizitatzailerean proposamenean harremanetarako emango den zenbakira bidaliz, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.



1. XEDAPEN OROKORRAK

- 1.1. Erakunde kontratatzailea
- 1.2. Kontratuaren araubide juridikoa
- 1.3. Kontratuaren xedea
- 1.4. Lizitazioaren gehieneko prezioa eta kontratuaren prezioa
- 1.5. Prezioen berrikuspena
- 1.6. Kontratuaren iraupena
- 1.7. Agindu teknikoak eta informazio gehigarria

2. LIZITAZIOAREN KLAUSULA BEREZIAK

- 2.1. Esleitzeko era eta izapideak
- 2.2. Lehiaketaren dokumentazioa eta informazioa
- 2.3. Bermeak
 - 2.3.1. Behin-behinekoa
 - 2.3.2. Behin betikoa
- 2.4. Proposamenen aurkezpena
 - 2.4.1. Lekua eta epea
 - 2.4.2. Proposamenei buruzko oharra
 - 2.4.3. Baztertzeko arrazoiak
- 2.5. Proposamenen edukia
 - 2.5.1. (A) gutun-azala: dokumentazio administratiboa
 - 2.5.2. (B) gutun-azala; formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa
 - 2.5.3. (C) gutun-azala; formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideen dokumentazioa
- 2.6. A gutun-azalaren irekitzea eta kalifikazioa (dokumentazio administratiboa)
- 2.7. (B) gutun-azalaren irekitzea eta ebaluazioa (formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa)
- 2.8. (C) gutun-azalaren irekitzea eta ebaluazioa (formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideen dokumentazioa)



- 2.9. Behin-behineko esleipenaren proposamena
- 2.10. Behin-behineko esleipena
- 2.11. Behin-behineko esleipendunaren dokumentazioaren aurkezpena
- 2.12. Kontratuaren behin betiko esleipena
- 2.13. Behin betiko esleipenaren jakinarazpena eta publizitatea

3. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

4. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK ETA BEHIN BETIKO ESLEIPENDUNAK SINATU BEHARREKO KONTRATUAREN KLAUSULA OROKORRAK

- 4.1. Kontratua gauzatzea
- 4.2. Kontratua aldatzea
- 4.3. Prezioaren ordainketa
- 4.4. Gutxieneko berme aldia
- 4.5. Epeak eta berandutzeagatiko zigorrak
- 4.6. Kontratua akatsez betetzea edo zatika bete gabe uztea
- 4.7. Esleipendunaren betebeharrak
- 4.8. Aseguruak
- 4.9. Egindako lanen jabetza eta datu pertsonalen erabilera
- 4.10. Lagapena eta azpikontratazioa
- 4.11. Behin betiko jasotzea
- 4.12. Hizkuntza baldintzak
- 4.13. Kontratuaren arduraduna
- 4.14. Kontratuaren iraungitzea

5. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

- 5.1. Epeak
- 5.2. Aldagaiak onartzea
- 5.3. Publizitatearen gastuak



Arauzko zehaztapen teknikoak

Alderdi teknikoak

Salbuespenak

Instalazioen ezaugarriak

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

III. ERANSKINA

IV. ERANSKINA



1.- XEDAPEN OROKORRAK

1.1. Erakunde kontratatzailea

Erakunde kontratatzailea (“**Erakunde kontratatzailea**”) Pleguaren karatularen **A Atalean** adierazitakoa da. Haren datuak, helbidea, telefonoa eta abar atal berean azaltzen dira.

1.2. Kontratuaren araubide juridikoa

Zuzenbide pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuan. Prestaketa eta esleipenari dagokionez, bertan azaltzen diren klausula administratibo bereziak eta karatularen **B Atalean** adierazten dena beteko dira. Kontratuaren ondorioak eta iraungitzea zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.

Kontratuaren prestaketa eta esleipenaren inguruan aldeek izan ditzaketen ezadostasunak konpontzeko eskumena **B Atalean** adierazten den agindu juridikzionalari dagokio. Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzekeo eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroei.

1.3. Lehiaketaren xedea

Karatularen **C Atalean** azaltzen den bezala, lehiaketa honen xedea hau da: hiru (3) eguzki-instalazio termiko hornitu, jarri eta abiarazteko kontratua egitea, giltza eskuan erakoa, eta horien mantentze prebentiboa kontratatzea hiru urteko (3) eperako.

Kontratuaren xedea honako sail edo lote hauetan banatzen da:

- **Sail 1.** Hernaniko erresidentzia eta kiroldegia.
- **Sail 2.** Hondarribiko kiroldegia.

Lizitatuzaileek aukera izango dute kontratuaren xede osoa bereganatzeko, edo sail bakoitzari dagokion atala, edo sail batzuen inguruan (bat edo batzuk) eskaintzak aurkezteko.

1.4. Lizitazioaren gehieneko prezioa eta kontratuaren prezioa

Jarriko den Wp bakoitzaren gehieneko prezioa karatularen **E Atalean** azaltzen den zenbatekoa izango da.

Instalazio bakoitzaren mantentze prebentiboaren prezioa hiru urteko eperako ez da 2.500 euro baino gehiago izango urtean, BEZa gabe.

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa. Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, Erakunde kontratatzaileak ez ditu ordainduko, **1. eranskin**ean ageri den



Zehaztapen Teknikoen arabera.

1.5. Prezioen berrikuspena

Karatularen **I Atalean** zehazten dena beteko da. Hori horrela, prezioen berrikuspenaren egokitasuna eta formula aplikagarria aztertuko dira.

1.6. Kontratuaren gehieneko iraupena

Zerbitzuak emateko denbora Plegu honen karatularen **D Atalean** zehaztutakoa izango da. Lizitatzailen proposamenetan gauzatzeko epearen laburpena aukez daiteke, eta haren balioespena egingo da **P Atalean** ezarritako irizpideei jarraiki,

Karatularen **R Atalean** hala aurreikusten baldin bada, kontratua luza daiteke, hasierako epeaz gain, bestelako denbora batez ere zerbitzuak emateko. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta esleipendunak bete beharko du.

1.7. Agindu teknikoak eta informazio gehigarria

Kontratuaren xedea den lana Plegu honetan adierazten diren baldintzak eta **I. eranskinean** azaltzen diren eta kontratuaren parte diren Zehaztapen Teknikoak kontuan hartuta egingo da.

Aipatutako eranskinean kontratuaren xedeari lotutako informazio gehigarria ere jasotzen da.

2.- LIZITAZIOAREN KLAUSULA BEREZIAK

2.1. Esleitzeko era eta izapideak

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta Karatularen **F Atalean** zehazten den bezala. Karatularen atal horretan aipatzen diren arau guztiak beteko dira.

2.2. Lehiaketaren dokumentazioa eta informazioa

Interesatuta dauden pertsonak karatularen **F Atalean** adierazten den lekuan dute eskuragarri kontratu honi lotutako dokumentazio guztia: Bertan, nahi izanez gero, dokumentazioaren kopiak eskura ditzakete. Dokumentazioaz eta kontratuaren gainerako eskakizunez izan daitezkeen zalantzak Erakunde kontratatzaileak argituko ditu.

Erakunde Kontratatzaileak enpresa esleipendunen esku jartzen dituen dokumentu horien helburu bakarra da lehiaketaren xedea diren eskaintzak egitea. Beraz, enpresa esleipendunek eta kolaboratzaileek konpromisoa hartzen dute dokumentu horiek eta daukaten informazioa ez erabiltzeko bestelako helburuekin.



2.3. Bermeak

2.3.1. Behin-behinekoa

Karatularen **I Atalean** hala jasotzen baldin bada, lehiaketa honetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da behin-behineko bermea aurkeztea enpresa lizitatzailleen aldetik, Karatulan zehazten den lizitazioaren aurrekontuaren zenbatekoa izango dena.

Enpresa lizitatzailerek bermea dirutan, Zor Publikoaren balioetan, abaletan edo berme-aseguru kontratuen bidez aurkeztu ahal izango dute. Abala eta berme-aseguru **II. eranskinean** ageri den ereduaren arabera gauzatuko dira.

Aldi baterako enpresa elkartuen kasuan, behin-behineko bermeak parte hartzen duen enpresa bakar batek edo batzuek jarri ahal izango dituzte; betiere Plegu honetan eskatzen den diru kantitatea jarrita eta aldi baterako enpresa elkarte guztietako kideak bermatuta.

Lehiaketaren behin betiko esleipenaren ondoren, lehiaketa esleitzen ez zaien enpresa lizitatzailerei itzuliko zaie behin-behineko berme hori.

Enpresa lizitatzailerek jarriko duten behin-behineko bermea gauzatuko da, baldin eta inolako justifikaziorik gabe eskaintza kentzen badute kontratuaren behin-behineko esleipena egin aurretik, edo hautatzen den esleipendunak behin betiko bermea jartzen ez badu, edo hari egotz dakizkion arrazoiengatik kontratua formalizatzen ez badu.

2.3.2 Behin betikoa

Karatularen **J Atalean** hala jasotzen baldin bada, enpresa esleipendunak behin betiko bermea jarri eta aurkeztu behar dio Erakunde Kontratatzailleari. Horretarako, 15 laneguneko epea izango du, edo 10 presazko prozeduraz bideratuz gero, kontratuaren behin-behineko esleipena publikoa egiten den egunetik kontatzen hasita. Karatulan zehaztutako kontratua esleitzeko prezioaren ehunekoaren baliokidea izango da bermearen zenbatekoa.

Enpresa lizitatzailerek bermea dirutan edo abaletan aurkeztu ahal izango dute. Abala **III. eranskinean** ageri den ereduaren arabera gauzatuko da.

Behin betiko bermeak honako egoera hauei egingo die aurre: a) esleipendunak kontratuan dituen betebeharrak berandu betetzea edo behar bezala ez betetzea, eta b) esleipendunak kontratua ez betetzea; c) jar dakizkiokeen zigorrak; eta d) hornidura-kontratuak direnean, aurreikusitako berme aldi hornitutako ondasunen kalte edo eragozpenak badira.

2.4. Proposamenen aurkezpena

2.4.1. Lekua eta epea

Enpresa lizitatzailerek beren proposamenak Erakunde Kontratatzaillearen bulegoan aurkeztuko dituzte, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Horretarako izango duten epea karatularen **G Atalean** zehazten da.

Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta Erakunde Kontratatzailleari jakinarazi beharko dio, egun bertan, posta elektronikoz, fax bidez edo telegramaz, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.



Hala ere, aipatutako datatik hamar egun igaro ondoren, bidali behar den dokumentazioa jasotzen ez bada, dokumentazio hori ez da inola ere onartuko.

Proposamenak hiru hilabeteko epean izan behar dira indarrean.

2.4.2 Proposamenei buruzko oharra

Behin proposamena aurkeztuz gero, lizitatuzaileak ezin izango alde batera utzi edo kentzea, behar bezala justifikatuta dagoen ezinbestekoa ez baldin bada.

Enpresa lizitatuzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Bakarka egin baldin badu, ezin izango du beste enpresa batzuekin batera aurkeztu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Enpresa batek aurkez ditzakeen proposamen guztiak baztertzea ekar dezake atal honetan azaltzen diren eskakizunak ez betetzeak.

Proposamenean eskaintza aintzat hartzeko funtsezkoak diren alderdiak ezagutzeko eragozten dituzten kontraesanak, dokumentazio falta, akatsak edo urratuak ageri badira, alde batera utziko da proposamen hori.

Eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu beharko dute enpresa lizitatuzaileek, eta dokumentazio hori notariala balitz, legeak eta arau notarialek eskatzen dituzten betekizun guztiak beteko ditu. Dokumentu administratiboak aurkeztu behar izanez gero, jatorrizkoak edo kopiak zein fotokopiak, behar bezala egiaztatuta, aurkeztu ahal izango dira.

Aurkeztuko den dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatziko da (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntza batean idatzita egongo balitz, itzulpen ofiziala egin beharko litzateke aurkeztu ahal izateko.

Proposamenak aurkezten dituzten lizitatuzaileek Plegu honetan azaltzen diren betebeharrak edo eskakizunak onartzen dituzte.

2.4.3. Baztertzeko arrazoiak

Erakunde Kontratatuzaileak modu egokian arrazoitu ondoren, lehiaketatik kanpo geratuko dira honako akatsen bat duten proposamenak:

- (a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- (b) Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala behar bezala ez egiaztatzea.
- (c) Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatuzaile batzuekin batera elkartuta aldi baterako.
- (d) Plegu honetan edo Zehaztapan Teknikoen atalean eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- (e) SPKLeke xedatutakoa ez betetzea.

Baztertuko diren proposamenak dokumentazio administratiboari dagokion gutun-azalaren irekitze-aktan jaso edo islatuko dira, eta baztertzeko zioak arrazoituko dira akta horretan.



2.5. Proposamenen edukia

Aurkeztuko diren proposamenetan hiru gutun-azal itxita (ezkoz zigilatuta ere egon daitezke), lizitatuzaileak edo ordezkatzeko duen pertsonak sinatuak, eta horietako bakoitzak honako dokumentazio hau izango du:

- (i) Lehiaketaren izena eta dagokion edukia.
- (ii) Lizitatuzailearen izena eta ordezkatzeko duen pertsona.
- (iii) Jakinarazpenak helarazteko helbidea, eta posta elektronikoko baten helbidea xede berari begira.
- (iv) Telefono eta fax zenbakiak.

2.5.1. (A) gutun-azala: Dokumentazio administratiboa:

(A) gutun-azalean haxe idatziko da:

“[Kontratuaren izena]

A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

Lizitatuzailea: [...]”.

Honako dokumentazio hau sartuko da, jatorrizkoa edo indarrean dagoen legeriarekin bat datorren benetako kopia, edo jatorrizkoaren edo notarioaren aurrean zilegi egin den benetako kopiaren fotokopia:

(i) Lehiatzeko gaitasuna:

- (a) Pertsona juridikoak diren enpresariak jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen.

Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.

Espainiarrak ez diren Europar Batasun estatu kideetako enpresaburuak direnean, erregimen profesional edo komertzial batean erregistratuta daudela egiaztatu beharko dute, erregistro hori eskatzen badu estatu horren legeriak.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren gaitasuna egiaztatzeke, jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo enpresaren helbidea kokatutako lurralde eremuari dagokion Kotsul Etxeak emandako txosten bat aurkeztu behar dute.

- (b) Bakarkako enpresaburua bada, lizitatuzailearen ordezkaria pertsona egiaztatzen duen dokumentuaren kopia aurkeztuko du (NANa espainiarrentzat, edo beste dokumentu batzuk atzerritarren kasuan).

(ii) Ahalak:



Bakarkako enpresaburua bada, lizitatzaillearen ordezkaria pertsona egiaztatzen duen dokumentuaren kopia aurkeztuko du (NANa espainiarrentzat, edo beste dokumentu batzuk atzerritarren kasuan), eta gainera, haren aldeko ahal nahikoa zuzenbidean, merkataritza erregistroan izena emanda, ordezkatzeko duen pertsonaren izenean kontratuak sinatzeko ahalbidetzen duena.

(iii) Lehiaketan aurkezteko eragozpen edo debekurik ez dutela adierazpen egiaztagarria:

SPKLen 130.1 c) artikulua arautzen duen ardurapeko adierazpena, ahalmen dutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Hori guztia, II. eranskinean dagoen ereduaren arabera.

Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak, indarrean dagoen legeriaren arabera Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen, SPKLen 130.1 c) artikulua dionari jarraiki.

(iv) Aldi baterako enpresa-elkartea:

Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimen tekniko eta ekonomikoa egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, karatulan besterik adierazten ez bada. Gainera halako kasuetan, honako informazio hau eman behar da.

(a) Izenpetzen duten enpresaburuen izena eta egoera..

(b) Bakoitzaren parte-hartzea enpresa-elkartean.

(c) Kontratua indarrean egongo den bitartean, jabetzaren aurrean enpresaburuen ordezkaria izango den pertsona edo erakundea, eta Erakunde Kontratatzaillearen esanetan izango da.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, Erakunde Kontratatzailleari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela. Gainerako kasuetan, ordea, ez.

(v) Behin-behineko bermea:

Berme hau karatulan **1. Atalean** hala eskatzen baldin bada, behin-behineko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa ere emango da.

(vi) Kaudimen teknikoa

Lizitatzailleek lehiaketaren inguruko jardueretan esperientzia dutela egiaztatu beharko dute, honako modu honen bidez:

a) Azken 5 urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen lan eta zerbitzu nagusien zerrenda, haien prezioak, datak eta onuradun publikoak eta pribatuak adieraziz.

Lehiaketa honetan parte hartzeko, azken 5 urtean eskatzen den antzeko hamar eguzki-instalazio termiko, gutxienez, egin behar izan dute.



b) Lizitzaileak egiaztatu beharko du dituen profesionalen titulazio homologatu eta egokia dela Espainian aritzeko; betiere Plegu honetan eskatzen diren lanak egiteko behar den titulazioei dagokienez. Horretarako, langileen batez bestekoaren zerrenda erantsiko du, azken bost urteko titulazioak jasoko dituen.

(vii) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa:

Lizitzaileek kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatu beharko dute, honako modu hauetako baten bidez:

- a) Merkataritza erakundeak badira, azken ekitaldiari dagozkion urteko kontuak, behar bezala ikuskatuta eta merkataritza erregistroan aurkeztuak. Pertsona fisikoak badira, aldiz, azken ekitaldiko Pertsona Fisikoen Aitorpenaren Zerga eta Ondarearen Zerga.
- b) Guztizko negozio zifrari buruzko adierazpena.
- c) Finantza erakundeen txostena.

(viii) Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea:

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoen baliabideekin, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
- b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
- c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatu dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
- d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.

(ix) Enpresa atzerritarren jurisdikzioa:

Atzerriko enpresek parte hartzen badute, adierazpen bat aurkeztu beharko dute, eta bertan, zuzenean edo zeharka kontratutik erator daitezkeen gorabehera guztiak argitzeari begira, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende soil-soilik arituko direla. Era berean, kasua bada, lizitzaileari dagokion atzerriko jurisdikzioari uko egiten diola adieraziko da.

Lizitzaileen Erregistro Ofizialean eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden enpresek (i) eta (ii) ataletan eskatzen diren sinestamenduak aurkezteko, nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiria aurkeztea, edo klasifikazioari buruzko komunitatearen egiaztatzea. Horrekin batera, lizitzaileak ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, erregistroan adierazitako datuetan aldaketarik izan ez dela agerraraziz.

Enpresa batzuk aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkezten badira, horietako bakoitzak aurkeztu beharko ditu eraketa eta gaitasunari buruzko eskakizunak.



2.5.2. (B) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa:

(B) gutun-azalak honako dokumentazio hau eduki behar du:

“[Kontratuaren izena]

B gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa

Lizitatzailerak: [...]”.

Lizitatzailerak aurkezten den sail edo lote bakoitzerako, honako dokumentazio tekniko hau, adierazten den hurrenkeran aurkeztuta:

- a) Lan metodologia: Egingo diren lanen deskribapena, bai Erakunde Kontratatzailearen aurrean izango dena, bai lanak gauzatzeko erabiliko dena.
- b) Instalazioen ezaugarri teknikoak: Egingo diren lanak azaltzarekin batera, jarriko diren ekipo nagusien ezaugarri teknikoen berri emango da.
- c) Kontratu gauzatzeko arituko den lan taldea: Plegu teknikoan azaltzen diren lan guztiak egiteko esperientzia egiaztatua eduki beharko du lan taldeak. Esperientzia hori frogatzeko, lan taldea osatzen duten kide bakoitzaren curriculum vitae aurkeztuko da.
- d) Bitarteko materialak: Enpresa eskaintzaileak egitasmoa gauzatzeko erabiliko dituen bitarteko materialak deskribatuko dira.
- e) Proposatzen diren hobekuntzak: Dokumentu honetan zehazten diren baldintzei egindako hobekuntzak adieraziko dira.
- f) Instalazioaren mantentze zentroa: Mantentzeaz arduratuko den enpresa identifikatuko da (I. eranskinaren taula), azken honen aldetik konpromisoa hartuta mantentzea egiteko dokumentua erantsiz, baldin eta lizitatzailerak, azkenean, behin betiko esleipenduna bada.
- g) Planifikazioa: Lizitatzailerak planifikazio eta lan egutegi zehatza aurkeztuko ditu. Bertan, besteak beste, eskaintzan azaltzen diren mugari nagusien hasiera eta amaieraz gain, gauzatzeko bideak ere agertuko dira. Horrekin batera, jardueren zehaztapena eta beste lan batzuekiko loturak jasoko dira planifikazioan. Kontuan hartu beharko da klimatologiaren eragina. Hori guztia kronograma batez lagunduta joango da. Aintzat hartuko da proposamenaren koherentzia.
- h) Bermea: Zenbait elementuren bermeak identifikatuko dira; adibidez, instalazioarena, bere osotasunean, eta eskulanarena, alderantzikagailuena, moduluena. Edozein kasutan, Plegu honen **K Atalean** adierazten diren gutxieneko epeak aintzakotzat hartuko dira. Era berean, honako atal hauek zehaztuko dira: matxurarik izanez gero, (plantaren funtzionamenduari eragiten dihonean eta eragiten ez dihonean), aurre egiteko epea, sortu daitezkeen gastuak adieraziz, eta horiek ordaintzea nori dagokion, lizitatzailerari edo Erakunde Kontratatzaileari.
- i) Azpikontatrazioak: Lizitatzailerak azpikontratatzeke asmoa duten kontratuaren zatiaren berri eman behar dute, kontratuaren prezioari dagokion ehunekoaz azalduz eta enpresaren izena edo profila adieraziz. Azpikontratazioetan geroago aldaketarik eginez gero, Erakunde Kontratatzailearen alde aurreko baimena beharko da, Plegu honetako 10.4 atalean esaten denarekin bat etorritik.

Gutun-azal honetan ez da sartuko proposamen ekonomikoa, ezta formula bidez kuantifikatu ahal den beste dokumentazio bat ere.

Azken batean, Plegu honen karatularen **P Atalean** zehazten den ildotik, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Horrez gain, lanak hobeto egiteko, bestelako informazio gehigarri edo egitasmoari egiten zaizkion hobekuntzak ere aurkez daitezke.

2.5.3. (C) gutun-azala: formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideen dokumentazioa:

(C) gutun-azalak honako dokumentazio hau eduki behar du:

“[Kontratuaren izena]



C gutun-azala: **Formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideen dokumentazioa**
Lizitatzailerak: [...]”.

(C) gutun-azalak proposamen ekonomikoa eta mantentzearena baino ez ditu jasoko. Hori guztia, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuta eta sail bakoitzerako. Horrekin batera, **V. eranskinean** agertzen den ereduaren arabera. Horrekin batera, proposamen ekonomikoaren eta mantentzearen ezaugarri eta kontzeptuei lotutako deskribapen zehatza azalduko da.

2.6. A gutun-azalaren irekitzea eta kalifikazioa “Dokumentazio administratiboa”

Proposamenak aurkezteko epea igarotakoan, kontratazio mahaiak A gutun-azalean “*dokumentazio administratiboa*” izango diren agiriak aztertuko ditu lehenbizi; betiere proposamenak denbora eta epeen barruan aurkeztuta.

Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, eragindako enpresei emango zaie haien berri, gutun edo jakinarazpen, fax edo posta elektronikoa bidez, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko, eta kontratazio mahaiari bidaltzeko. Aurrekoa gorabehera, aipagarriak izan daitezkeen kasuak kontratatzailearen profilean edo egokitutako jotzen den beste bideren bat erabiliz argitaratuko dira.

Aurreko paragrafoetan adierazitako akatsak zuzendu arren, kontratazio mahaiak, gaitasun eta kaudimen eskakizunak egiaztatze aldera, azalpenak eskatu ahal zaizkie enpresei zenbait dokumentu edo egiaztagiriren inguruan, edo bestelako dokumentu osagarriak aurkezteko eskatu. Material hori bost eguneko epean aurkeztuko da, aurreko paragrafoan aipatzen den onartzeko adierazpenaren ondoren.

Aurkeztuko den dokumentazioa sailkatu eta gero, eta hala badagokio, akatsak edo hutsuneak zuzendu ondoren, kontratazio mahaiak erabakiko du gaitasun eta kaudimen eskakizunak betetzen dituzten enpresen zerrenda, eta berariazko adierazpena emango du onartu edo baztertuko dituen enpresei buruz. Baztertzeko arrazoiak ere adieraziko ditu.

Onartu eta baztertuko diren enpresen zerrenda, eta baztertzeko arrazoiak azalpena, lizitazioan parte hartuko duten enpresa guztien eskura egongo da. Hala, kontratazio mahaiaren aurrean kontsultatzeko aukera izango dute, kontratazio mahaiak beste bide batzuek argitaratzeko eskubidea badu ere, adibidez, erakunde beraren iragarki- taulan edo kontratatzailearen profilean; betiere prozeduraren arabera bideak erabiliz. Nolanahi ere, aipatutako zerrenda jendaurrean irakurriko da, eskaintza ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoan.

2.7. B gutun-azalaren irekitzea eta ebaluazioa “Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa”

Lizitatzeko onartuko diren enpresak zehaztutakoan, kontratazio mahaiaren idazkariak B gutun-azalak “*Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa*” bidaliko dizkio sailaren zerbitzu teknikoari, azken honek ebaluatzeko dokumentazio hori. Hain zuzen ere, aurkeztuko diren proposamenen azterketaz zerbitzu teknikoak arduratuko dira, karatularen **Q Atalean** adierazten denarekin bat etorritik.

Aipatutako zerbitzu teknikoek kontratazio mahaiari bidaliko dizkiote aztertuko duten dokumentazioa (gutun-azalaren izango dena) eta ebaluazio txostena. Ebaluazioaren emaitzak jendaurrean azalduko dira, kontratatzailearen profilean bidez, edo prozeduraren arabera beste bide batzuk erabiliz. Nolanahi ere, aipatutako emaitzak jendaurrean irakurriko dira, eskaintza ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoan.



2.8. C gutun-azalaren irekitzea eta ebaluazioa “Formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideen dokumentazioa”

Kontratazio mahaiak, HAKLEOren 83. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintzak zabaltzeko ekitaldi publikoa egingo den egun eta orduan, jakinaraziko ditu parte hartuko duten enpresen kopurua eta izenak. Jakinarazpen hori egiteko epea ez da bi (2) hilabete baino gehiago izango, proposamenak aurkezteko azken egunetik kontatzen hasita. Ekitaldi berean “A” gutun-azalaren dokumentuen kalifikazioaren emaitzak ere emango dira, onartu edo baztertuko diren enpresei buruzko adierazpena egingo. Baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

Horren ondoren, B gutun-azalaren irekitzearen emaitza eta gutun horretan aurkeztuko den dokumentazioaren inguruko ebaluazioa jakinaraziko dira ahoz.

Jarraian, C gutun-azala, “Formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideen dokumentazioa”, irekiko da, eta bertan aurkeztuko diren eskaintzak irakurriko dira.

2.9. Behin behineko esleipenaren proposamena

“C” gutun-azala irekitze publikoaren ondoren, kontratazio mahaiak behin behineko esleipenaren proposamena egingo du, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

Halaber, kontratazio mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen beste txosten eska dezake, kontratuak behar bezala esleitzeko.

Horren ondoren, EEEn kontratazio mahaiak esleitzeko proposamena egingo du, eskaintzak balioesteko irizpideak aintzat hartuta

Oharrak: Esleitzeko proposamena egin aurretik, eskaintzen gaineko alderdiren bat argitzeari begira, EEEn kontratazio mahaiak argibideak idatziz bidaltzeko eskatu ahal die enpresei. Nolanahi ere, argibideak emateko fase horretan, ez da inola ere onartuko eskaintzan adierazitakoa aldatzea lizitatzailaren aldetik. Hori horrela, emango den informazioa hasieran proposatutako irtenbidearen azterketarako balioarritzat hartuko da.

Kontratazio organoari bidalketa. EEEn kontratazio mahaiak aurkeztuko diren proposamenak bidaliko dizkio kontratazio organoari, puntuazioaren arabera sailkatuta eta eskaintzak balioesteko irizpideak kontuan hartuta. Era berean, baztertuko diren proposamenak, aktak, egingo diren txostenak, egingo duen esleitzeko proposamena eta egokitzen joko dituen oharrak bidaliko dizkio.

Ondorioak. Esleitzeko proposamenak ez du esan nahi proposatuko den lizitatzaila esleipenduna izango denik, edo onartu beharra duela ezinbestean erakunde kontratatzaileak.

2.10. Behin-behineko esleipena

(i) Arau orokorrak

Esleitzeko proposamenarekin adostasuna.- Arau oroko gisa, behin-behineko esleipena kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera izango da. Horrela ez balitz, kontratazio organoak proposamenarekiko aldea edo ezberdintasuna arrazoitu beharko luke.



Balio ezohikoak edo gehiegizkoak.- Kontratazio mahaiak proposatutako eskaintzak balio ezohikoak edo gehiegizkoak izango balitu eta kontratazio organoak, enpresak egindako justifikazioa aintzat hartuta eta eskatutako txostenei jarraiki, eskaintza ezin izango litzatekeela bete, balio ezohikoak edo gehiegizkoak direla eta, behin-behineko esleipena egingo luke bigarren proposamen ekonomiko egokiena, sailkatu diren hurrenkera kontuan hartuz; betiere, Erakunde Kontratatzaileak azken proposamen hori modu onean beteko dela uste badu eta inolako balio ezohiko edo gehiegizkorik ez badu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: eskaintzen duen m² bakoitzaren prezioa onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehuneko hogeita (% 20) gutxiago denean.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonen informazioa eskatu eta eman beharko litzaioke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza emango zaio eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke.

Edukia, jakinarazpena eta argitalpena.- Behin-behineko proposamena arrazoitua izango da. Horretarako, nahikoa da esleipendunaren eskaintzari puntuazioa jartzea arrazoitua izateko. Behin-behineko esleipenaren akordioa onartuko diren esleipendun guztiei jakinaraziko zaie, eta Erakunde Kontratatzaileak duen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Informazio eskabidea.- Enpresek hala eskatzen badute, informazioa emango zaie hamabost eguneko (15) gehieneko epean, eskabidea egin den egunetik kontatzen hasita, eta haien proposamena baztertzeko arrazoiak edo zioak azaltzearekin batera, hautatuko den proposamenaren ezaugarri nagusiak eta bera aukeratzeko zergati garrantzitsuenak adieraziko lirateke.

Epea ez betetzea.- Erabakitako epean behin-behineko esleipena egingo ez balitz, enpresa lizitatzailerik eskubidea izango dute euren proposamenak bazter uzteko.

Ez esleitzea.- Kontratazio organoak ezin izango du lizitazioa eman gabe utzi, baldin eta proposamen batek Plegu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

Esleipenari uko egitea eta prozedura bertan behera uztea.- Kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoitutako zioak direla eta, kontratuaren esleipenari uko egin ahal dio edo, betiere behin-behineko esleipena egin aurretik, edo esleitzeko prozedura bazter utziko luke, kontratua prestatzeko arauetan edota esleitzeko prozeduran arau-hauste konponezina gertatuko balitz. Horrela gertatuz gero, lizitatuak bakoitzari 100 euro emango litzaioke, kalte-ordain gisa.

(ii) Eskaintzak balioesteko irizpideen pluraltasuna

Kontratazio organoak hilabeteko (1) epean, proposamenen irekitze publikoaren biharamunetik kontatzen hasita, aurkeztuko diren proposamenak sailkatuko ditu, puntuazioaren arabera, eta eskaintzak balioesteko irizpideak aintzat hartuta. Gainera, proposamen egokienari kontratua behin-behinean esleitzeko ahalmena izango du; betiere balioesteko irizpideei eta horiei Plegu honetan ematen zaien puntuazioari erreparatuz, edo lehiaketa esleitu gabe uztea; azken kasu honetan ere arrazoitu beharko du erabakia, balioesteko irizpideak kontuan hartuta. Aipatutako gehieneko epea hamabost egun baliodun (15) luzatuko da, baldin eta balio ezohikoak edo gehiegizkoak dituzten proposamenen adierazpena bideratzeko irizpideak egin behar badira.



2.11. Behin-behineko esleipendunaren dokumentazioaren aurkezpena

Argitaratzen den egunetik hamabost egun baliodun (edo hamar izapidea presazkoa balitz) igaro ondoren, eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko du esleipendunak. Dena dela, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- (i) Zerga guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtapen positiboa, eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen duen ziurtapen positiboa.
- (ii) Enpresarien elkartearen eratzeko eskritura publikoa, eta haren I.F.K., lehiaketan era horretara parte hartu bada.
- (iii) Behin betiko bermea jartzea, Plegu honetako III. eranskinean ageri den ereduaren arabera.
- (iv) Pleguan eskatzen diren aseguruaren polizak.
- (v) Kontratuak eskatzen duen dokumentazioa.
- (vi) Hala badagokio, publizitatearen inguruko gastu guztiak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, Erakunde Kontratatzailerak aurkeztuko dion likidazioarekin bat etorritik.

2.12. Kontratuaren behin betiko esleipena

Behin-behineko esleipenaren dokumentazioa aurkezteko dauden hamabost egun baliodunen epea amaitu ondoren, hamar egun baliodunen epearen barruan, kontratazio organoak behin betikotzat hartuko du behin-behineko esleipena; betiere esleipendunak eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuta. Behin betiko proposamena arrazoitua izango da. Horretarako, nahikoa da esleipendunaren eskaintzari puntuazioa jartzea arrazoitua izateko.

Kontratazio organoak egingo duen behin betiko esleipenaren bidez perfektzionatuko da kontratua.

Behin-behineko esleipendun hautatu izan arren, behin betiko esleipenduna izateko behar diren baldintzak betetzen ez baditu, deialdi berri bat egin baino lehen, kontratazio organoak beste behin-behineko esleipen bat egin ahalko du, baldintzak betetzen ez dituen esleipendun horren ondoren daudenei esleitzen, horien eskaintzak sailkatuta leudekeen hurrenkerari jarraiki, betiere ahal denean eta bigarren esleipendunak edo berriak oniritzia emanda. Horrela balitz, esleipendun horri hamar egun balioduneko epea emango zaio, behin-behineko esleipena egiteko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ahal izateko.

2.13. Behin betiko esleipenaren jakinarazpena eta publizitatea

Behin betiko esleipenaren jakinarazpena SPKLen 137. artikulua dioena betez egingo da.

Interesdunek hala eskatzen badute, hamabost eguneko gehieneko epean emango zaie informazioa, informazioa jasotzeko eskaria egiten den egunetik kontatzen hasita. Informazio hori hautagaitza edo proposamena baztertzeko arrazoiaren inguruan izan daiteke, edo esleipenduna izango denaren proposamenaren ezaugarriak buruz, esleipena lehiakide hori emateko arrazoi erabakigarriak biltzen dituen informazioa, hain zuzen ere.

Kontratazio organoak esleipenaren gaineko zenbait datu eman gabe utz ditzake, espedientean behar bezala justifikatuta, datu horietako bat edo batzuen berri emateak arauen baten aplikazioa eragotz edo oztoka dezakeela, interes publikoaren kalterako dela edo enpresa publiko edota pribatuen merkataritza interesak eta euren arteko lehia kaltetu ditzakeela uste badu.



Behin betiko esleipena kontratatzailearen profileen argitaratuko da, eta SPKLen 138.2 artikuluan zehazten den zenbatekoa gaindituz gero, DQUEn ere argitaratuko da.

3. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Esleipendunari bere eskaintza behin betiko onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunetik kontatze hasita, hamar (edo bost izapidea presazkoa bada) egun naturaleko epean sinatu beharko du kontratua.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Eskritura publikoa egiteko eskubidea izango dute alde biek; horren ondorioz sortuko diren gastuak eskatuko duen aldeak ordainduko ditu.

Kontratuaren formalizaziotik eratorriko diren gastu guztiak esleipendunaren kontura joango dira.

Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak aurreko klausuletan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, Erakunde Kontratatzaileak kontratua bertan behera uztea erabakiko du, interesduna entzun ondoren. Arrazoiak enpresariaren erruz sortu ezean, Erakunde Kontratatzaileak berariaz luzatuko du, idatziz arrazoituz, eta esleipendunari epe berriaren berri emango dio. Epe hori ez da izango gorabeheren ondorioz galduko den denbora baino luzeagoa.

4. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK ETA BEHIN BETIKO ESLEIPENDUNAK SINATU BEHARREKO KONTRATUAREN KLAUSULA OROKORRAK

4.1. Kontratuaren gauzatzea

a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren edo esleipendunaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita Erakunde Kontratatzailearentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da

f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.



g) Erakunde Kontratatzaileak ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

h) Kontratua amaitutakoan, kontratuari lotutako lanen hartze formala egingo du Erakunde Kontratatzaileak. Une horretatik aurrera, Plegu honetan adierazten den berme aldia indarrean jarriko da.

4.2. Kontratuaren aldaketa

- a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko, Erakunde Kontratatzaileak kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu. Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuaren aldaketan prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatuz.
- b) Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedari dagokionez, aldeztu aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.

Erakunde Kontratatzailearen oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari.

4.3. Prezioaren ordainketa

- a) Kontratistak Erakunde Kontratatzailearen adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.
- b) Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.
- c) Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.
- d) Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.
- e) Plegu honetan jasotzen den bezala, Erakunde Kontratatzaileak kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.



4.4. Gutxieneko berme aldia

Esleipendunak honako alderdi hauek bermatu beharko ditu: hornituko dituen ondasun guztiak haren jabetzakoak direla eta zerga, karga edota grabamenik ez dutela hirugarrenen alde, akatsik ez dutela; jabetza industrial eta intelektualari dagokionez, indarrean dagoen legeria beteko dela eta kalitate eta segurtasun aldetik egokiak eta legezkoak direla.

Gutxieneko berme aldia hiru (3) urtekoa izango da, kontratuaren prestazioa behin betiko jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Berme aldi horretan, adostutako kalitate baldintzak ez betetzearen ondorioz, materialen konponketarik egin behar izanez gero, esleipendunaren ardura izango litzateke.

Aipatutako konponketaren bat egin beharko balitz, berme aldia eten egingo litzateke, konponketa egiten den bitartean.

Esleipendunak bermea betetzen ez badu, Erakunde Kontratatzaileak eskubidea izango du ordaindu gabe dituen zenbatekoak ez ordaintzeko; baita abalak gauzatzeko eta kontratua bertan behera uzteko ere. Gainera, esleipendunak dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Berme aldia igaro ondoren, eta Erakunde Kontratatzaileak esleipendunari jakinarazi ez badio lanak egitean akats, kalte edota arazorik, kontratua deuseztatuko da eta esleipendunaren ardura; baldin eta agerian ez diren akats edo arazo ez badira. Horrelakoetan, esleipenduna izango litzateke arduraduna, berme aldia igarota ere.

4.5. Epeak eta berandutzeagatiko zigorrak

- a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.
- b) Kontratista edozein epean berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango Erakunde Kontratatzaileak alde aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak Erakunde Kontratatzaileak ezarriko ditu automatikoki.
- c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, Erakunde Kontratatzaileak finkatutako azken prezioaren %20ko zigorra ezarri ahal dio.
Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten Erakunde Kontratatzaileak kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta Erakunde Kontratatzaileak kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.
- d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

4.6. Kontratua akatsez betetzea edo zatika bete gabe uztea

- a) Erakunde Kontratatzaileak zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatzeko eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio, konponketak egiteko epea hamabost (15) egunekoa delarik.



- b) Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, Erakunde Kontratatzaileak lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio. Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, Erakunde Kontratatzaileak jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

4.7. Esleipendunaren edo kontratistaren betebeharrak

i- Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

ii- Betebehar laboral eta sozialak

- a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralarari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.
- b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.
- c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.
- d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokienez.
- e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.
- f) Kontratu hau sinatzeagatik Erakunde Kontratatzaileak ez du inolako betebehar eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du Erakunde Kontratatzaileari erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoan aurrean.
- g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrei, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta Erakunde Kontratatzaileari ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak.



Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio Erakunde Kontratatzaileari Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan.

- h) Erakunde Kontratatzaileak hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio.
- i) Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, Erakunde Kontratatzaileak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du, 30. klausulan edo atalean adierazten den moduan
- j) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere Erakunde Kontratatzailearen langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.
- k) Kontratatari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

iii- Segurtasun eta osasunari buruzko betebeharrak

Esleipendunaren ardurak izango da jarduera guztietan pertsonen segurtasun eta osasunari lotutako legeria betetzea, eta langunea modu egokian izango du une orotan pertsonentzat inolako arriskurik ez sortzeko. Lanak egiten hasten denetik behin betiko jasotzearen akta sinatu arte, honako baldintza hauek beteko ditu:

- Behar diren babesteko neurri guztiak hartuko ditu; adibidez, suteen kontrakoa, zaintza zerbitzuak, argiak, hesiak, ohartarazteko seinaleak eta abar.
- Hala eskatzen baldin badiote, segurtasun eta osasun alorrean diharduten arduradunen eta langileen ordezkarien esku jarriko du Segurtasun eta Osasun Plana, eta oro har, bete eta betearaziko dizkie azpikontratatuak 1627/1997 Errege Dekretuak eta gainerako legeek ea arauak diotena. Gainera, langunean gorabehera buruzko liburu bat izango du.

Erakunde Kontratatzaileak edo honen ordezkariak edozein unetan egin ahal izango du egokien iruditzen zaizkion ikuskapenak, esleipendunak segurtasun eta osasunari buruzko betebeharrak betetzen dituela egiaztatze aldera, eta behar izanez gero, neurri edo erabaki osagarriak eskatzeko eskubidea izango du. Neurri horiek aurrera eramatea esleipendunaren ardurak izango dira. Bete ezean, kontratua alde edo osorik bertan behera uzteko eskubidea izango luke Erakunde Kontratatzaileak.

iv- Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, Erakunde Kontratatzaileak eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

v- Hirugarrenen baimenak

Erakunde Kontratatzaileak bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.



4.8. Aseguruak

1.- Kontratuaren loturak irauten duen bitartean, esleipendunak jarraian agertzen diren aseguruak izenpetu eta indarrean mantendu beharko ditu onartutako finantza-kaudimena duten konpainiekin, eta esleipendunak edo bere azpikontratatistak eragin ditzakeen kalteen estalduraren barruan izango dute Eeakunde Kontratatzailea. Kontratatistak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

a) Erantzukizun zibil profesionala

Erantzukizun zibil profesionalaren aseguru honek diharduten profesionalak beste bati eragin ahal dizkieten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Horrekin batera, aseguratuak bere zereginak egitean, edo haren menpeko egon daitekeen eta erantzukizuna duen besteren batek izan dezaketen akats profesionalen edo arduragabekeriaren ondorioz, ondareari eragin ahal zaizkion kalteak ere kontuan hartuko ditu aseguru horrek.

Aipatutako aseguruak, besteak beste, erantzukizun zibil patronala (lan istripuak) produktuena eta lanen ondorengokoena bildu beharko ditu eta horren gutxieneko estaldura 600.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzerako; zenbateko hori Baldintza Pleguan aldatu ahalko da. Erantzukizun zibil patronalari dagokionez, gutxieneko estaldura 150.000 eurokoa izango da kasu bakoitzeko. Lanak direla eta, Esleipendunak salgaiak edo ekipoak garraiatu behar izanez gero, garraioari lotutako erantzukizun zibilaren estaldura kontuan hartuko da.

b) Ibilgailuen aseguru

Aseguru horiek, haren jabetzako edo azpikontratatisten ibilgailuek, makinek eta, oro har, ekipoek Erakunde Kontratatzaileari edo hirugarrenei eragin ahal dieten kalteen ondorioz, erantzukizun zibileko estaldura izango dute.

c) Pertsonen aseguru

Lanetara esleitutako langile eta azpikontratatu guztien gaixotasunagatiko eta laneko istripuengatiko aseguruak, aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez, eta langileen hitzarmenetan ezarritakoa kontuan hartuz. Legez eskatzen diren aseguru guztiak ere barne egongo dira.

d) Beharrezkoak diren beste aseguru batzuk, edo/eta aplikagarria den legeriak hala eskatuta.

Esleipendunak estaldura horiek guztiak izan beharko ditu obra behin betiko jasotzen den ondorengo sei (6) hilabetean. Era horretan, aipatutako epean, aseguruaren polizak kontuan hartuko ditu hirugarrenen erreklamazio guztiak.

2.- Aurrekoa kontuan izanik, esleipendunak uko egiten dio inolako erantzukizunik eskatzeari Erakunde Kontratatzailearen aurka.

3.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratatistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio Erakunde Kontratatzaileari, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirake, behar izanez gero, Erakunde Kontratatzailearen iritziz.

4.- Kontratatistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, Erakunde Kontratatzaileak aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi



nabarmenduz, Erakunde Kontratzaileak eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeke, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, Erakunde Kontratzaileak kontratatari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

5.- Aseguruen inguruan kontratatari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, Erakunde Kontratzaileari eman beharko dizkio azalpenak.

6.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak Erakunde Kontratzaileari jakinaraziko dio. Era berean, Erakunde Kontratzaileak hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

7.- Kontratuan azaltzen diren lanak egitearen ondorioz gerta litezkeen istripuak direla eta, Esleipendunak ez dio Erakunde Kontratzaileari inolako erantzukizunik eskatuko, ez ekonomikoa ez galerengatikoa, eta, hala dagokionean, Erakunde Kontratzaileari kalte-ordaina eman beharko dio.

8.- Hirugarrenek erreklamazio edo galera handia, arazo, kalte edo lan istripu larria gertatuz gero, Esleipendunak berehala jakinaraziko dio Erakunde Kontratzaileari idatziz.

9.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, Erakunde Kontratzailearen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

10.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

11.- Esleipendunak klausula edo atal honetan aipatzen dena aintzat hartzen ez badu, kontratua ez duela betetzen ulertuko da.

4.9. Egindako lanen jabetza eta datu pertsonalen erabilera

i- Egindako lanen jabetza

Erakunde Kontratzailearen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, Erakunde Kontratzailearen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe Erakunde Kontratzaileak espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek Erakunde Kontratzailearen esku utziko dute aipatutako jabetza intelektual edo industrial.

Jabetza intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak Erakunde Kontratzaileari eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldez aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.



Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela Erakunde Kontratatzailearen baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

ii- Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jardura hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipaturako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeko egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.



4.10. Lagapena eta azpikontratazioa

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, Erakunde Kontratzaileak alde zuzenetik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena. Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratistak azpikontrata egin nahi izanez gero, SPKLen 210 artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. Erakunde Kontratzaileari azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontrata egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioak egiteko, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

(i) Kontratistak Erakunde Kontratzaileari horren berri eman beharko dio idatziz eta alde zuzenetik, egin nahi diren azpikontratu guztiak aipatuz eta azpikontratista bakoitzak egin behar duen kontratuaren parte adieraziz.

(ii) Erakunde Kontratzailearen alde zuzeneko oniritzia.

Erakunde Kontratzaileak azpikontrata hori ez onartzeko gaitasuna du, proposatutako azpikontratutako enpresak beharrezko kaudimen teknikorik ez duela frogatzen bada edo azpikontrata egikaritzeko beharrezko baldintza teknikoak ziurtatzen ez baditu.

Dena dela ere, azpikontratatuak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, Erakunde Kontratzaileari dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

4.11. Behin betiko jasotzea

Obra behin-behineko jasotzeko izapideak abian jarriko dira Esleipendunak kontratuaren arduradunari, Erakunde Kontratzaileak hautatutakoari, honako hau jakinarazten dionean:

(i) Obra 1. eranskinean azaldutako zehaztapen teknikoen eta Esleipendunaren eskaintzan adierazitakoaren arabera amaitu dela.

(ii) Akatsik aurkituz gero, den-denak konponduta daudela.

(iii) Indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazio guztia prestatuta dagoela.

(iv) Behin-behineko instalazioak kendu direla eta lekua behar bezala garbitu dela.

Hamabost (15) eguneko epea igaro baino lehen, kontratuaren arduradunak obra aztertuko du eta egiaztatuko du obrak arau edo baldintza teknikoak eta KABPen azaldutako klausuletan esaten dena betetzen dituela; baita eskaintzan eta kontratu honetan jasotzen dena ere.

Ikuskapena edo azterketa positiboa bada, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo du, ale bitan, eta EEEri eta Esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.



Kontratuan azaltzen diren lanetan kontratuaren arduradunak akatsik aurkituz gero, ordea, Esleipendunari jakinaraziko dio eta honek hamabost (15) eguneko epean, gehienez ere, konpondu beharko lituzke akatsak.

Goraxeago adierazi den epean Esleipendunak aipatutako akatsak konponduko balitu, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo luke, ale bitan, eta Erakunde Kontratatzaileri eta Esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Prestazio akasdunei lotutako arazoak adierazitako epean konpondu ezean, Erakunde kontratatzaileak bertan behera utz dezake kontratua eta kalte-ordainengatik eskabidea egin dezake. Esleipendunak ordura arte jasotako kopurua eta %20 gehiago izango da kalte-ordainaren zenbatekoa.

4.12. Hizkuntza baldintzak

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

4.13. Kontratuaren arduraduna

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, Erakunde Kontratatzaiileak kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenaz egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenaz dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.



4.14. Kontratuaren iraungitzea

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, Erakunde Kontratatzaileak egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari Erakunde Kontratatzaileak eskatu eta bere horretan gauzatu lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik Erakunde Kontratatzaileari kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, Erakunde Kontratatzailea baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzaten jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

5. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

5.1 Epeak

Besterik esaten ez bada, Plegu honetan aipatzen diren epe guztiak egun baliodunei dagozkie.

5.2. Aldagaien onarpena

Aldagaiak sartzeko aukera karatularen **N Atalean** azaltzen da. Onartuz gero, aldagaiak zehaztu beharko dituzte euren ondorioz eragingo diren elementu guztiak.

5.3. Publizitatearen gastuak

Lehiaketa honen gastu guztiak (egunkarietan argitara litezkeen iragarkiak barne) enpresa esleipendunak ordainduko ditu, karatularen M atalean hala adierazten bada. Gastu horien gehieneko zenbatekoa aipatutako atalean adierazten dena izango da, eta Erakunde Kontratatzaileak fakturatuko dio enpresa esleipendunari kontratua formalizatu baino lehen.



ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN PLEGUA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, 3 EGUZKI INSTALAZIO TERMIKO HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZEA KONTRATATZEKO

Zehaztapen teknikoak

Honekin batera doazen artxiboetan 3 eguzki planta termikoen erreferentziazko betekizun teknikoak azaltzen dira; baita planta bakoitzaren kokalekua identifikatzeko oinarritzko planoak ere.

Mantentze prebentiboaren baldintza teknikoak eta maiztasuna

Mantentzea teknikari kualifikatuek egin beharko dute, enpresa instalatzailearen ardurapean. Instalazioen bizitza erabilgarri osoan egin beharko diren eragiketa guztiak kontuan hartuta, eta haien funtzionamendu egokia egiaztatu, ekoizpena handitu eta iraupena luzatu ahal izateko, bi jardun maila zehaztu dira: mantentze prebentiboa eta mantentze zuzentzailea.

(i) Mantentze prebentibo plana: Zenbait eragiketa egingo dira, esate baterako, ikuskapenak, jardueren egiaztapenak eta abar. Hori guztia instalazio bakoitzean aplikatuz gero, instalazioak ondo funtzionatzeko, zerbitzu egokia emateko, babesteko eta irauteko lagungarria litzateke. Instalazioen mantentze prebentiboaren barruan, urtean instalazio bakoitzera hamabi (12) bisita egitea sartzen da, hilean behin, eta bista horietan honako jarduera hauek egingo dira:

- Kaptazio sistemen egiaztapena: kaptadoreak, kristalak, xurgagailua, karkasa, konexioak, egitura eta abar.
- Metaketa eta trukaketa sistemaren egiaztapena: depositua, isolamendua, babes katodikoa eta abar.
- Zirkuitu hidrauliko sistemaren egiaztapena: estankotasuna, isolamenduak, purgagailuak, ponpak, hedatzeko ontzia, balbulak, izoztearen kontrako jariakina eta abar.
- Elektrizitate eta kontrol sistemaren egiaztapena: koadro elektrikoa, kontrol diferentziala, konexioak eta abar.
- Mantentze liburu batean egiten diren mantentze lanak erregistratzea; bertan agertuko dira mantentze lanak egiten duten pertsonen identifikazioa (izena, titulazioa eta enpresaren baimena).
- Sei hilabetez behin, bisiten inguruko txosten teknikoa egitea. Txosten horretan instalazioen egoera eta izandako gorabeherak jasotzeaz gain, hilean kontagailuak neurtzen duen ekoizpen metatua ere azalduko da.
- Hilero, eguzki-instalazioen eraginkortasunaren jarraipena egitea, etengabeko monitorizazio sistemaren bidez.

(ii) Mantentze zuzentzaile plana: Instalazioen bizitza erabilgarrian zehar modu egokian funtzionatzeko egin behar diren ordezkapen operazio guztiak sartzen dira planean. Honako jarduera hauek aurreikusten dira:



- Instalazio bakoitzera bisita egitea, berme-egiaztagiriak adierazten duen epeen barruan eta erabiltzaileak eskatzen duen bakoitzean, instalazioan izandako matxura larriaren ondorioz.
- Instalazioen funtzionamendu egokia izateko behar diren berrezartze eta lanen azterketa egitea; baita horiei dagozkien aurrekontuak egitea ere.

Instalazioaren mantentze zentroa

- (i) Era berean, instalazioan akats edo matxurarik gertatuz gero, eta haren konponketa edo errebisioa kontratatutako bermearen mantentze zuzentzailean sartuta baldin badago, horretaz arduratzen den enpresak hogeita lau (24) orduko epean, gehienez ere, joan beharko du instalaziora, akats edo matxuraren berri ematen dioten unetik, eta horrek plantaren funtzionamenduari eragiten badio. Akatsak edo matxurak bete-betean eragiten ez dio plantaren funtzionamenduari, aldiz, hirurogeita hamabi (72) orduko epean, gehienez ere, joan beharko da instalaziora.

MANTENTZE ZENTROA
Enpresaren izena:
Helbidea:
Harremanetarako pertsona:
Telefonoa:
Posta elektronikoa:



II. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

[...] jaun/andreak*, ondorio hauetarako honako helbidea duenak: [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] NAN, bere izenean arituz, edo “[...]” aren izenean arituz, honako helbide duena [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] telefonoa eta I.F.K.: [...].

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkutzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatze debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 20XXko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]
Ahalordez



III. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [Erakunde Kontratatzaillearen izena) aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak haurgatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketan bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 200[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]



V. ERANSKINA
FORMULA BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA
HONAKO SAIL HONETARAKO [...]

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA MANTENTZEARENA

[...] jaun/andreak*, ondorio hauetarako honako helbidea duenak: [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] NAN, bere izenean arituz, edo “[...]” aren izenean arituz, honako helbide duena [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] telefonoa eta I.F.K.: [...].

ADIERAZTEN DU

- I.** (Erakunde Kontratatzailearen izena] deitutako [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua arautzen duen klausula administratibo berezien plegua eta gainerako dokumentazioa ezagutzen dituela.
- II.** Kontratu hau sinatzeko, ordezkatzeko duen enpresak indarrean dagoen legeriari lotutako betebeharrak eta eskakizun guztiak betetzen dituela.
- III.** Kontratu honen xedea gauzatzeko aldera, (...) saila egiteko honako diru-proposamena hau egiten du: euro [adierazi letraz eta zifraz], gehi BEZari dagokion [...] euro [adierazi letraz eta zifraz], ondoko tauletan egiten den banaketaren arabera. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, zergak, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.
- IV.** Kontratu honen xedea gauzatzeko aldera, (...) saila burutzeko, m² bakoitzaren preziorako proposamen hau egiten du: euro [adierazi letraz eta zifraz], gehi BEZari dagokion [...] euro [adierazi letraz eta zifraz], ondoko tauletan egiten den banaketaren arabera. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, zergak, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.
- V.** Instalazio bakoitzaren **mantentze prebentiboa** aurrera eramateko, ondoko taulan ageri den proposamen ekonomikoa egiten du. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.

MANTENTZEA			
	BEZ gabe	BEZ	GUZTIRA
Mantentzearen prezioa urtean, instalazioaren berme aldian			
Mantentzearen prezioa urtean, instalazioaren berme alditik at			
Mantentze kontratuaren prezioan, bermetik kanpo dauden elementuen mantentze zuzentzaileari lotutako eragiketak badira			
- Lekualdaketei dagozkien gastuak sartzen dira? (bai/ez)			
- Eskulanei dagozkien gastuak sartzen dira? (bai/ez)			

[...]n, 20XXko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].
Ahalordez.

*Aldi baterako enpresa-elkartea bada, hori osatzen duten kide guztiek egingo dute proposamena.

Ohar garrantzitsua: eranskina honen hurrengo orrietan proposamen ekonomikoren zehaztapenak azalduko dira; baita mantentzearen lan eta ezaugarrienak ere.